



Esp.kodea: 2017KKUL0017

**Gaia:** San Juan jaietako ekitaldiak Udaletxe  
balkoi nagusitik ikusteko zozketa egitea  
**Hasiera eguna:** 2017/05/30

## ALKATETZAREN ERABAKIA N17/0765

San Juan jaietan Udaletxeko balkoitik hiru ekitaldi ikusteko aukera eskaini nahi diegu herritarrei, izena eman dutenen artean zozketa eginez. Beharrezkoa denez izen ematea eta zozketa arautuko duten oinarri-arauak finkatzea, Udalaren Zerbitzu Teknikoek egindako txostena ikusirik, eta legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz, honen bidez, hauxe **erabaki dut** oinarri arau hauek onartzea:

### ■ Zozketaren helburua

Izena eman duten herritarren artean zozketa elektronikoa egitean ikusi ahal izateko Udaletxeko balkoitik 2017ko San Juan jaietako ekintza hauek:

- Haurren danborrada, ekainaren 17an
- Errementari Dantza, ekainaren 23an
- Nagusien danborrada, ekainaren 23an

### ■ Izena ematea:

- Non: Udalaren webgunean ( [www. arrasate.eus](http://www.arrasate.eus)) eta BAZen
- Noiz: 2017ko ekainaren 1etik 10ra
- Izena ematerakoan herritarrak aukeratu ahal izango du ikusi nahi duen ekintza interes ordenaren arabera.

### ■ Zozketa:

- Zozketa egingo da ekainaren 14an.

### ■ Zozketaren prozedura:

1. zozketa: ekintza bakoitzean 1. lehentasuna aukeratu dutenen artean. Hautatuko dira 15 lagun.
2. zozketa: plazak beteko ez balira ekintza bakoitzean 2. lehentasuna edota 3 lehentasuna aukeratu dutenen artean; aurreko zozketetan irabazle suertatu ez direnen artetik, plazak bete arte.

### ■ Zozketaren berri ematea:

- Irabazleei jakinaraziko zaie telefonoz, edo SMS mezu bidez edo/ eta posta elektronikoz.

### ■ Izena emateko baldintzak:



**Esp.kodea:** 2017KKUL0017

**Gaia:** San Juan jaietako ekitaldiak Udaletxe  
balkoi nagusitik ikusteko zozketa egitea  
**Hasiera eguna:** 2017/05/30

- Arrasaten erroldatuta egotea
  - 16 urtetik gorakoa izatea
- Zozkatuko den toki kopurua:
- Ekintza bakoitzeko 15 toki bikoitz; balkoian uneoro gehienez 30 lagun egon ahal izango dira eta
  - 16 urtetik beherako haurren kasuan nagusi batekin joan behar direnez, adinez nagusiak eman behar du izena.
  - Zozketaren irabazleak ez du aukera izango ekintza bat baino gehiagotara joateko
- Irabazleak Udaletxeko balkoira joateko:
- Irabazle suertatu direnak Udaletxeko sarreran agertu beharko dira NANarekin egun eta ordu hauetan:
    - ✓ Haurren danborrada ikusteko ekainaren 17an. Ordua: 19:30
    - ✓ Errementari dantza ikusteko, ekainaren 23an. Ordua: 22:00
    - ✓ Nagusien danborrada ikusteko ekainaren 23an. Ordua: 23:30

Arrasate, 2017ko maiatzaren 30a

ALKATEA

María Ubarretxena Cid

Arrasate, 2017ko maiatzaren 30a